

JESÛ KRISTEN IMITAZIONEA

C'est le titre d'un livre souletin publié en 1757, réédité en 2010 par l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia, avec ma collaboration. L'auteur en fut Martin Maister, curé de Licq au milieu du XVIIIème siècle. En fait il traduisit un livre beaucoup plus ancien, écrit en latin au XVème siècle, au temps de Jeanne d'Arc, par le prêtre-moine Thomas Hemerken, dit Kempis, sous le titre "*De imitatione Christi*", *l'imitation de Jésus-Christ*. La méditation de l'auteur, qui part de la Passion du Christ, s'adresse d'abord à ses confrères, les religieux cloîtrés, mais en visant aussi un public plus large.

Kampis a été traduit de nombreuses fois dans diverses langues: en basque je compte douze traductions, dont celle de Maister. La vocation de l'Académie basque n'est évidemment pas de théologuer, mais de mettre à la portée de chacun les textes des bons auteurs. Celui-ci le mérite bien par la souplesse incroyable de son verbe et la richesse de son vocabulaire.

Prosalari ederra

Libürü hau prosalari hon batena da, eta berriki arte güti ziren holakoak: XVII. mentean Belapeyre mauletarra, XIX. mentean Inchauspé Altzabehetikoa, bien artean arren Maister: hiruak apezak, bat mentekal. Xiberotarrez lehenago hanitx idatzi da, bai pastoraletan, bai kobla eta kantoreetan, bena prosan xühürki. Hütsüne handia günüan kasik bi mentez, Belapeyre eta Inchauspéren artean: Maisterri esker zilo hori betatzen dügü. Egia da geroxeago beste prosalari bat agertü dela Xiberoan, Jüsef Egiategi errejent filosofoa: haatik irakur gaitza da, hitz berri hanitx egarten beitu. Aldiz Maisterren mintzajea hanitx aisa entelega diro zoin-nahi xiberotarrek, bai eta eüskaraz ontsa badakian eüskaldün orok.

Imitazionearen mezüa

Thomas Kempis fraideak bera bezalakoentako idatzi dü. Komentü batetan bizi direner emaiten dütüan aholkü elibat franko nonbrilistak üdüritzen zaitzat. Bena fraide izateaz gain, apezak da Kampis hori, libürüko azken zatian ontsa erakusten düan bezala: hor bere nonbrilismotik elikatzen da, popülüaren zerbütari agertüz, denen salbamentüaz düan arrenküra biziarekin. Kiristi aldetik, azken parte hori zait hoberena.

Fedezko argiez gain, zentzü honezko aholküak ere emaiten deizkü, nornahirentzat baliagarriak, fededün izan gitean ala ez. Hona horren bi kontseilü hon: bata jente handiekiko lotüra ahal oroz bazter ützi behar dela, bestea ezpiritüko libertatea oroz gainetik txerkatü.

Maisterren beste xedea

Imitazioneko mezüa “*Züberoa herriko*” kiristi orotara zabaltü nahi dü. Gaineala libürü horri bigerren helbürü bai ikusten deio: eskoletako haurrer eüskaraz irakurtzen irakasteko tresna bezala proposatzen dü. Ordükoz eskola txipiak baziren herrietan, Elizaren manaspenean. Belapayre bikari jeneralak 1696an Xiberoko apezker manü hau eman zeien: “... gure jaun Apezküpüaren ordenantzen arau, nork bere parropietan, ororen eskola bat ezareraiziren düe ahalik sarriena”. Ez ziren haur güziak eskolan sobera ibiliko, bena etxekal batek bederen irakurtzen ikasi behar züan.

Maisterren libürü hori oraiko izkiribü berrian ezarri dü, argibide / esplikazione andana batekin. Aitzin solaz bat franko nasaia hontü deiot, nolako denboran agertü zen erakusteko. Ürrrentzean hiztegi bat ezarri deiot xehe-xehea. Ez zen lan txipia, bena kontent ützi nai.

Jean-Louis Davant